

ELA

HEZKUNTZA

Lan legepeko irakasleak eta heziketa berezia

ZUREKIN GOAZ

Indar betez, buru-belarri

HAUTESKUNDE SINDIKALAK

ela.eus     #ZurekinGoaz

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

2019ko martxoaren 26an garrantzia handiko hitzordu bat dugu hezkuntza publikoko langileok: hauteskunde sindikalak. Egun honetan, langileok, gure botuaren bidez, gure ordezkariak aukeratu eta datozen lau urtetarako indar korrelazioak erabakiko ditugu.

Azken urteetan krisiaren aitzakiapean murrizketa oso gogorak ezarri dizkigute hezkuntza publikoan. Krisi aurretik baino aberastasun gehiago sortzen dugun arren hezkuntzan inbertsio publikoa beherantz doa etengabe zorraren ordainketara bideratzen den dirua gorantz doan bitartean. Gure ikastetxeetatik dirua atera, banketxeei emateko. Hori da gobernuek, botere ekonimikoen interesei men eginez erabaki dutena.

Hezkuntza publikoa jo-puntun dago: plantilen murrizketa, ratioen igoera, lan-kargen handitzea, eros ahalmenaren galera, behin-behinekotasun tasa onartezinak, erretiroaren atzerapena eta zailtzea, LOMCE eta Heziberriren inposaketa, segregazioa...

Azken bi ikasturteetan egoera honi aurre egin asmoz greba eta mobilizazio historikoak eraman ditugu aurrera hezkuntza publikoan eta gobernua mugiaraztea lortu dugu, ZORIONAK!

Zoritxarrez, eta ELAren iritziaren kontra, gainerako sindikatuak hezkuntza publikoak dituen arazoei erantzuten ez dieten akordioak sinatu zituzten Jaurilaritzarekin pasa den ikasturtean. ELA izan zen grebak mantentzearen alde agertu zen sindikatu bakarra. Sindikatuon papera ezin da izan administrazioak aldebakarrez inposatzen dituen murrizketen zati txiki bat itzultzen digutelako eskerrak ematea, baizik eta bizi dugun eraso bortitzaren aurrean langileak antolatu eta borrokarako bide ematea.

ZERGATIK ELA?

- Ikasturte hasierarekin batera argi ikusi dugu hezkuntza publikoak dituen arazoak bere horretan jarraitzen dutela eta esperientzaik argi erakutsi digu Jaurilaritza beste norabide batean doazen erabakiak hartzera behartu nahi badugu langileon antolakuntza eta greba eta mobilizazio dinamika indartsu baten bidez izango dela. Zoritxarrez ELA da momentu honetan bide hori egiten ari den sindikatu bakarra.
- Hezkuntza berdintasuna, justizia soziala, integrazioa, jendarte kohesioa eta garapen pertsonal eta sozial integralerako oinarritzko tresna izango den eta hezkuntza publikoa ardatz izango duen hezkuntza sistema baten alde borrokatzen dugulako.
- Hezkuntza publikoko sektore desberdinetako prekaritate egoera, arazo eta aldarrikapenei bide emateko beharrakoa den mobilizazioa bultzatzen dugulako.
- Guzti hori aurrera eraman ahal izateko egitura eta antolakuntza oso sendo eta zabala dugulako. Ideologikoki eta ekonomikoki sindikatu independientea garelako. Klase sindikatu feminista garelako, eta gurea kontrabotereko sindikalismo aldarrikatzailea delako.

HORREGATIK, ELA SINDIKATUA HEZKUNTZA PUBLIKOAK ERAIKITZEKO INOIZ BAINO EZINBESTEKOAGOA DA!
ZURE ESKU DAGO, MARTXOAREN 26AN BOZKATU ELA!



HAUTESKUNDE SINDIKALAK

HAUTESKUNDE SINDIKALAK

ELA sindikatua, Hezkuntza Publikoa eraikitzeke inoiz baino ezinbestekoagoa!

Hauteskunde hauek erabakiorrak izango dira lan-legepeko irakasle eta heziketa bereziko sektorerako zein eredu sindikal nahi dugun definitzeko: alde batetik Hezkuntza Sailaren interesetara moldatzen den eta mobilizazioa baztertzen duen negoziazio kolektibo eredu bat lehenesten duen eredu sindikala eta bestetik, kontrabotereko eredu sindikal bat, langileen lan-baldintzak hobetuko dituen benetako edukiz osatutako negoziazioa lortzeko mobilizazioa ezinbestekoa dela ulertzen duena.

Aurreko bi ikasturteetan aurrera eramandako greba eta mobilizazioetan ikusi genuen moduan, Hezkuntza Saila langileok antolatu eta borrokaturikoan sorturiko presioaren aurrean soilik esertzen da benetako edukiak negoziatzera.

Mobilizazio eta greba haiek oso arrakastatsuak izan ziren eta indar betean zeuden arren, gainerako sindikatuek, ELAren iritziaren kontra, Eusko Jaurlaritzarekin lan-legepeko irakasle eta heziketa bereziko langileen aldarrikapen eta arazoei irtenbiderik ematen ez zien akordioa sinatzea erabaki zuten.

Ikasturte berriaren hasierarekin batera, argi eta garbi geratu da irakasleon arazo estrukturalak ez direla konpondu desmobilizazioa besterik ekarri ez duen akordio honen eskutik.

Guzti honengatik, ELAn uste dugu langileen antolakuntza eta mobilizazioa inoiz baina garrantzitsuagoa dela. Eta horregatik, zuen babesa behar dugu martxoaren 26ko hauteskundeetatik ELAren indar korrelazio eta proposamenak indartuta atera daitezen eta negoziazio mahaietan Hezkuntza Sailari aurre egingo dion kontrabotereko sindikatu bat egon dadin.

SOLDATAK

- Eroste ahalmena berreskuratu. Krisia aitzakiatzat hartuta urte luzeetan soldata igoerarik ez izateak, gure eroste ahalmenaren %12ko jaitsiera ekarri du.
- Soldata arrakalarekin amaitu.
- Gradu tituludunak maisu-maistrekin homologatu (egun %20 gutxiago kobratzen dute) eta hezitzaileak %95a.
- Udako kobrantza ordezkioentzat. Ikasturtean zehar 165 egun edo gehiago lan egin ezkerro, uda kobratu eta puntuatu.
- Seiurtekoak kobratu.

ENPLEGUA

- 2019. ikasturtean, Heziketa Berezian, behin-behinekotasun tasa %63ko da. Behin-behinekotasun tasa hau ez da kasualitatea, erabaki politiko bat baizik. Behin-behinekotasuna %6ra

jaitsiko duen kontsolidazio EPE baten alde lanean jarraituko dugu.

- Bi ikasturtez errepikatzen diren lanpostu guztiak LZn azaleratu.
- LZ barruan dauden lanpostu guztiak oposaketetara atera.
- Lanpostu gehiago sortu eta lan kargak gutxitu.

JARDUNALDIA

- 35 orduko asteko jardunaldia.
- Asteko jarduna:
- 27,30 ordu arreta zuzena.
- 2,30 ordu koordinazio eta material prestaketarako.
- 5 ordu bazkaltzeko.
- Urteko lan ordu kopurua asteko lan ordu kopuruari egokitu.
- HLEaren lan orduak ikaslearen eskola orduekin hasi eta bukatu.
- 60 urtetik gorako langileei asteko arreta zuzena 1/3 gutxienez.

FUNTZIOAK

- Funtzioak mugatu.
- Garraioan ez da heziketa lana egiten, beraz, garraiorik ez hezitzaileen funtzioetan!!

KONTZILIAZIOA

- Urteko 20 orduko baimena familiartekoei medikura laguntzeko.

LAN OSASUNA

- Lanpostu bakoitzaren balorazioa (arriskuak, osasuna...).
- Haurdunaldiko 23. astetik aurrera arrisku egoera onartu.
- Zerbitzu eginkizunak sortu.

ETA...

- Hezkuntza premia berezien inguruko irizpideak gogortu egin dira. Irizpideak malgutu eta zabaldu.
- Erretiro aurreratua eta pizgarriak.
- Eskolan erabakiak hartzen diren organoetan parte hartu eta bozkatzeko eskubidea.
- Behar bereziko ikaslearen inguruan egiten diren bileretan HLEn parte hartzea.
- Ratioak zehaztu, bai integrazioan, bai gela egonkorretan.
- Prest-Garako formakuntza guztietan parte hartu ahal izan.
- Langile guztiek jangelako menua jateko eskubidea.
- Barne promozioa sortu.

Martxoaren 26an, bozkatu ELA!



**HITZARMEN BERRIA
ORAIN!!**



ZUREKIN GOAZ

Lan legepeko irakasleak eta heziketa berezia

HAUTAGAITZA

BIZKAIA

- 1.Eider Iturriaga De la Iglesia.
- 2.Nagore Alonso Longarte.
- 3.Igone Martinitz-Albeizko Kortabarria.
- 4.Eguzkiñe Centeno Moreno.
- 5.Karmele Fernandez Elejalde.
- 6.Pedro Lopez de Muniain Solar.
- 7.Zorion Usabel Urien.
- 8.Eva Maria Cortazar Herreros.
- 9.Isusko Llodio Zubiaur.
- 10.Pedro Azkarragaurizar Igartza.
- 11.Ana Aldana Amunategui.
- 12.Susana Uranga Edroso.
- 13.Janire Zubiaga Muñoz.
- 14.Esperanza Nieto Chamorro.
- 15.Ainhoa Crespo Isasa.
- 16.Deñe Aristondo Akarregi.
- 17.Estibaliz Diaz Regulez.
- 18.Cayetano Jimenez Cruz.
- 19.Jesus Javier Bajo Trabudua.
- 20.Inmaculada Cabezas Teran (beste 3 hautagai)

GIPUZKOA

- 1.Maider Ruiz de Gordo Balerdi.
- 2.Maider Ezkioga Ruiz.
- 3.Martin Letona Olano.
- 4.Ana M^a Alcibar Azpeitia.
- 5.Olatz Zulaika Errasti.
- 6.Joseba Imanol Iturbe Aya.
- 7.M^a Asuncion Alkorta Martinez de Albeniz.
- 8.Nerea Orbea Basauri.
- 9.Manuel Santiago Reboredo Castiñeiras.
- 10.Margarita Provedo Mañas.
- 11.Martin Zurbano Irizar.
- 12.Iker Arrizabalaga Crespo.
- 13.Garbiñe Arakama Ruiz de Egin.
- 14.Itziar Izagirre Larrañaga.
- 15.Juan Jose Galarraga Galarraga.
- 16.M^a Carmen Garin Iñorbe.
- 17.Jaione Sarasua Zuricaray.
- 18.Patxi Xabier Arrieta Sudupe.
- 19.Jaione Goikoetxea Irurtia?.
- 20.Agurtzane Garin Iñorbe (beste 26 hautagai)

ARABA

- 1.Eva Blanca Fernandez Calleja.
- 2.Alaitz Arana Mendizabal.
- 3.Maria Arantzazu Uribe-Etxeberria Aranzabal.
- 4.Tamara Contreras Ramirez.
- 5.Amaya Alonso de Mezquia Murgui.
- 6.Fernando Del Moral Iglesias.
- 7.Juan Camarena Muñoz.
- 8.Laia Moreno Rodrigo.
- 9.Monika Caballero Nistal.
- 10.Maria Felisa Urreta Zabalo.
- 11.Ana Sol Duque Leivar.
- 12.Julia Temprano Gonzalez.
- 13.Rebeca Landeras Arin.
- 14.Margarita Izquierdo Lopez de Arroyabe.
- 15.Gema Saenz Alonso.
- 16.Amaia Abrisqueta Valle.
- 17.Miriam Gonzalez Abecia.
- 18.Cristina Calderon Reyes.
- 19.Cristina Ramos de la Cruz.

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

ela.eus



ZUREKIN GOAZ

Indar betez, buru-belarri

HAUTESKUNDE SINDIKALAK

ela.eus



#ZurekinGoaz